

## JESUS-EK APOSTOLUAI OÑAK GARBITZEA.



Afaria bukatzera zan, eta Jesus-ek adierazo zien, gauza andi batzuek buruan zerabilzkiela: izatez ere alaše zan; brida, iñori gogoak ere eman ezin zizayokean miraria egitera zijoan: mundutik irten bear zan orduetan bere Gorputz eta Odol biziak uztera zijoan: Aldareko Sakramentu guziz Santua ipintzera zijoan, baña bere burua umiltasunik gogoangarrienera lenago beeratuta.

Jesus mayetik jaiki zan, gañeko bere soñekoa kendu, eta esku-zapi edo toaja batekin gerria lotu zuen: ontzi batera ura botata, pres-tatu zan, Apostoluai oñak urarekin garbitu eta zapiarekin leortzeko. ¡Umiltasunaren andia Zeru-lurren Jabearentzat! Apostolu guzien buruari bezala Pedro-ri bereala asi zitzayon; baña Apostoluak, chit arri-turrik, otsegin zuen: ¡Zér! ¿Zuk, Jauna, niri oñak garbitu? Nik egiten dedana, Jesus-ek eranzun zion, zuk orain ezdakizu; gero jakingo dezu. Ez, Jauna, ez, Pedro-k esan zion; egundaño ez dizut, Zuk niri oñak garbitzen, utziko. Bada Nik ez garbitzera, Jesus-ek esan zion, ez dezu nerekin zer egiñik izango. Pedro larritu zan, eta esan zion: Jauna, garbitu zaskidazu oñak, ez ezen, esku eta burua ere. Jesus-ek esan zion: garbi dagoanak, oñak beste garbitukizunik ez du; bada gu-zia garbia dago, eta zuek garbiak zaudete, guziok ezpada ere. Esan au zeñentzat edo zeñegatik zan, Judas-ek igerri zion, baña etzan aren biotz arrizkoa biguntzeko adiña izan; eta bere Maisu andi, salduta zeukanari, utzi zion, oñ, asko aldetatik zikin, ayek garbitzen damutasunaren antzik ere eman gabe.

Guziai oñak garbitu-ondoren, esku-zapia utzita, soñekoa artu zuen eta mayean eseri zan, eta esan zien: Dakusute, zuekin zer egin dedan.

Jauna, eta Maisua, deitzen didazute, eta egia diozute: ala naiz. Orain, bada, baldin Nik zuen Jaun eta Maisu naizan onek, oñak garbitu badizkizutet, zuek ere elkarri garbitu bear diozkazute, zeren erakutsi dizutedan, Nik zuekin egin dedan bezala, zuek ere elkarrekin egin dezazuten. Egi-egiaz esaten dizutet: morroya ez da nagusia baño geiago; bialdua ere ez, bialtzallea baño. Au zintzó aditu eta egiten badezute, zorionekoak izango zerate. Zuekgatik ez diardut. Badakit, zeintzuek autu ditudan: ezpada, bete ditezen, Eskriturako itz oyek: Nerekin ogia jaten duenak orpoa nere kontra jasoko du. Bertatik eta aldeurrez, gertatuko dan baño lenago, esaten dizutet, gero gertatzen danean, sinistu dezazuten, Ni naizela Mesias, Jainkoaren Semea. Egi-egiaz esaten dizutet: nik bialtzen dedana artzen duenak, Ni nerau artuko nau, eta Ni artzen nauenak, Ni bialdu nauena artuko du.

FRANZISKO IGNAZIO LARDIZABAL-KOAK,

---

## ¡O JESÚS!



Etzait oroitzen zerurik,  
Ez ta ere infernurik:  
Bizi naiz nitaz azturik,  
¡Zu bakarrik maitaturik!

ANTONIO ARZÁC.

1888-ko Ostiral-Santuz.

